

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

HERRI ERABILERAKO LURRETAN POSTU, BARRAKA, SALMENTA-POSTU, IKUSKIZUN EDO ATRAKZIOAK IPINTZEAGAITIK, KALEKO INDUSTRIA IBILTARIENGAITIK ETA ZINEMA ERRODAJEAK EGITEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua: XEDEA ETA OINARRIAK

Udal honek, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 2005/9 Foru-Arauko 16. eta 21. artikuluetan oinarrituta, herri erabilerako lurretan postu, barraka, salmenta-postu, ikuskizun edo atrakzioak ipinteagaitik, kaleko industria ibiltariengaitik eta zinema errodajeak egiteagaitik ordaindu beharreko tasea arautzea da ordenantza honen xedea.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Udalaren herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da tasa honen egitate ezargarría.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

Orokorrean Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorren 34. artikuluan azaltzen diran pertsona fisiko eta juridikoak dira subjektu pasiboak zergadun kontzeptuan eta tasa honetan bereziki, honeek:

1.-Subjektu pasiboak dira, zergadun lez, lizentziak edo emakidak jasotzen dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak diranak, baimenik barik egin badira jarduerak.

2.- Gordailu edo finantza erakundeetako fatxadatan ezarritako kutxazain automatikoen subjektu pasiboa izango da:

a) Kutxazain automatikoan identifikatuta agertzen dan finantza erakundea (izenaren edo anagramaren bitartez)

b) Titularraren identifikazioa ez danean agertzen kutxazaina daukan fatxadako titularra hartuko da.

4. artikulua: SORTZAPENA

Ordenantza honetan araututako tasea ordaindu beharra sortuko da:

- a) Herri jabariaren aprobetxamendu barrien emakidak diranean, lizentzia eskatzen dan momentuan. Kitapen zuzenez jakinazaroko dira.
- b) Baimendu eta luzatutako aprobetxamenduen emakidak diranean, tarifetan agertzen diran aldi natural bakoaren lehen egunean. Errolda bidez errezibozko kitapenak egingo dira.
- c) Enkante bidezko emakidak diranean, esleipena egiten dan momentuan.
- d) *Emakida edo lizentzien eskualdaketa kasuan, aldaketa onartzen den momentuan. Kitapen zuzenez jakinaraziko dira.*

5. artikulua: TASA KUOTA

1.- Tasa kuota, tarifen atalean agertzen diren tarifak okupatutako eremuari aplikatzearen emaitza izango da, beti ere okupazioko elementu guztiak kontuan hartuta, *azokatxoko lizentziaren eskualdaketa kasuan izan ezik. Azken kasu honetan, tasa kuota kopuru finko bat izango da.*

2.- Tasa kuota murriztuezina da tarifetan ezarritako eremu eta denboraren arabera.

3.- **Tarifak:** Epigrafetan banandu dira aprobetxamendu mota ezberdinak, tokia eta denpora-iraupena kontutan izanda.

2020 (€)

1.EPIGRAFEA: Etxetxo edo kantina desmuntagarrien eta txanpona behar daben aparatu automatikoen bidezko aprobetxamentua eta edozein instalazinoen okupazioa gutxienez hilabetekoa denean, m ² -ko eta hileko edo zatiko guneen arabera honako tarifa honeek:	m2 / hileko
-1.gunea	23,69 €
-2.gunea	17,39 €
-3.gunea	11,23 €
-4.gunea	9,51 €
-5.gunea	7,56 €
-6.gunea	5,78 €
-7.gunea	5,03 €
-8.gunea	4,53 €
-9.gunea	3,14 €
-10.gunea	2,48 €
-11.gunea	1,81 €
-12.gunea	0,99 €
-13.gunea	0,18 €
-14.gunea	1,55 €

2.EPIGRAFEA: Postuak, etxetuak edo liburuak saltzeko ibilgailuak, bisuteria, lorak, beste edozein produktu, hilabeterako baino gutxiagoko iraupeneko lizentziak direnean. Baita, ibilgailuen salmenta eta erakusketa, ikuskizun eta jolasetako okupazioa, karabana eta ferriako ibilgailuen okupazioak, filmaketak egiteko okupazioak ere bai, m ² -ko edo zatiko eta eguneko guneen arabera honako tarifa hauek:	m2 / eguneko
-1.gunea	1,27 €
-2.gunea	0,94 €
-3.gunea	0,58 €
-4.gunea	0,58 €
-5.gunea	0,44 €
-6.gunea	0,37 €
-7.gunea	0,31 €
-8.gunea	0,21 €
-9.gunea	0,18 €
-10.gunea	0,16 €
-11.gunea	0,11 €
-12.gunea	0,04 €
-13.gunea	0,04 €
-14.gunea Gune bereziak Gaztelugatxe, Iزارo eta abar	1,52 €
Salbuespen modura Aita Guria itsasontzian ezkontza erreportajeak egitea	117,64 €
3. EPIGRAFEA: Herriko jaietan barraken tokiaren okupazioa, m ² -ko edo zatiko eta eguneko	2,55 €
4.EPIGRAFEA: Azokatxoko postuak, m ² -ko edo zatiko urtean	70,47 €
4.1 Azokatxoko lizentzien eskualdaketa	1.367,06 €
5.EPIGRAFEA: Herriko jaietan era guztietako postuak ipintzea, m ² -ko edo zatiko eta eguneko:	9,12 €
6.EPIGRAFEA:- Kutxazainak: kasu guztietan josten da kutxazain bakoitzak metro koadro bi okupatzen dituela.	
Lehenengo kategoriako kalean	602,25 €
Bigarren kategoriako kalean	442,02 €
Hirugarren eta hortik beherako kategoriako kaleetan	285,25 €
7. EPIGRAFEA- Gaztaina postuak, denboraldia	80,23 €

6. artikulua: KITAPENAK ETA ORDAINKETEA.

1.- 1go. eta 2. epigrafetako aprobetxamenduen kuotak lizentzia emotean kitatuko dira zuzeneko kitapenaren bidez, lizentzia jaso dauen aprobetxamenduaren iraupenaren eta eremuaren arabera.

Ikuskapena edo egiaztapena eginda, hartutako eremua handiagoa bada edo aprobetxamenduaren iraupena luzeagoa bada, kitapen osagarria egingo da, beti be zerga urratzea dala-eta egokia dan zigorraren kalte barik.

Lizentziarik bako aprobetxamenduen kasuetan, zuzeneko kitapena egingo da ikuskapenaren edo salaketearen espedientearen agertzen diran datuen arabera.

2.- Barrakak

a) Esleipena enkantez bidez egiten bada, 3. epigrafeko tarifa lizitazinorako gutxieneko kopurua izango da. Esleipeneko tarifaren araberrako kuotaren ordainketa baldintzen pleguan ezarrita dagoan legez egingo da.

b) Herriko jaietan barraka gunek daukan jolas eta sozial izaera Udalak herri jabariaren okupazioa hitzartu leike Udalak Euskadiko ferrialarien alkartegaz edo alkarreekaz herriko jaietan barrakak jarteko. Okupazioaren eremua, denbora, onurak eta bestelako aldagaiak kontutan izanda finkatuko ahal izango da 3. epigrafeko tarifa baino txikiagoa edo tasa kuotea eta jarteko baldintzaz ganera, zenbateko ha be hitzarmenaren xedea izango da.

3.- Azokatxoa

a) Lizentziak *Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen dauan ordenantzan* xedatutakoaren arabera emongo dira eta tasa honeri jagokonean bereziki aipagarriak dira ordenantza horretako 14. eta 25. artikulua.

b) Lizentziak:

.- Lizentziek 10 urteko iraupena daukate eta lizentzia eskariak horretarako deialdia kaleratzen denean aurkeztu beharko dira Berh@z bulegoan, deialdian finkatutako ezinbesteko agiriak aurkeztuta.

Deialdia zabaldu eta lizentziak emateko prozedura amaitu ondoren posturen bat hutsik geratuko balitz, hurrengo deialdira itxaron barik aurkeztu ahal izango dira lizentzia eskariak, eta berdin, deialdi bat eta bestearen arteko epean, hutsunerik suertatuko balitz.

.- Eman daitezkeen salmentarako baimenak aurkeztutako eskariak baino gutxiago izango balira, baimenak zozketa prozesuaren bidez emango lirarteke. Horretako, baimenak saltokietan saltzen diren produktuen arabera talde ezberdinetan sailkatuta egongo dira, eta zozketa bakarrik egingo da baimen baino salmentarako eskari gehiago dauden taldeetan, aldiz, talde bateko salmentarako baimenen kopurua nahikoa izango balitz aurkeztutako eskabide guztietarako, aurreko paragrafoko prozesua jarraituko da.

- Esleipendunekaz Azokatxoko errolda eratuko da.

- 4. epigrafeko urteko tarifa aplikatuta ematen duen zenbatekoa izango da urteko tasa. Baina lau hiruhilekotan banandutako errolda fiskalen bidez errezibozko kitapenak egingo dira, urteko tasaren zenbatekoa horrela zatituta.
- Urtean zehar egon daitezkeen alta eta baja kasuetan tasaren zenbatekoa hiruhilekotan zatituko da. Alta kasuan eskaria egin zeneko hiruhilekoa hartuko da kontuan eta baja kasuan eskaria egin zeneko dataren hurrengo hiruhilekoa.

4.- Beste epigrafeen ordainketa egiteko modua

a.- 5go. eta 7. epigrafetako aprobetxamenduen kuotak azokako arduradunak kobratuko ditu zuzenean erabilera egunean, lizentzia jaso duen aprobetxamenduaren iraupenaren eta eremuaren arabera ikuskaturik.

b- 6. Epigrafean jasotako aprobetxamendua lizentzia ematean kitatuko dira zuzeneko kitapenaren bidez, eta Errenta Saisetik errolda eratuko da.